

## Emozioak dantzan

Emanaldi-sorta ederra eskaini dute Kukukak, Semblante Andaluzek eta Amaia Gonzalez Caballero akademiak / 5

## Usadioaren zaindariak

Azkorteko Baselizaren Lagunak elkarteak jarduna eten du, hainbat hamarkadaren ostean / 8-9

Ahotsak "bizirik" nahi dituela aldarrikatu du Alboka abesbatzak, Donostian egindako 'Manifes-Topaketan' / 4

Bidasoa XXI taldeko igerilari Ainhoa eta Leire Martin ahizpekin hitz egin du TXINTXARRI-K / 10

TXINTXARRI

# 2 mó

*bat eguzkitakoa izan daiteke*

# 99€

+

## ukipen-lenteak opari

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.




R.P.S. 91/20

Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
**LASARTE-ORIA**

## MULTIÓPTICAS

www.multiopticas.com   





Zenbait herritar, ilara egiten, Lasarte-Oriako komertzio batean erosketak egiteko zain. TXINTXARRI

## COVID-19ak eragindako gastuei aurre egiteko

Lasarte-Oriako Udalak dirulaguntza-lerro bat jarri du martxan. Merkatariek, ostalariek eta zerbitzu pertsonaletako negozioek egokitzapenak egin behar izan dituzte, pandemia tarteko; egin dituzten inbertsioen zati bat berreskuratu ahalko dute, 1.500 eurora arteko ekarpenekin

### Txintxarri

COVID-19ak eragindako egoera tarteko, herriko hainbat negoziok inbertsioak egin behar izan dituzte, haien jarduera ekonomikoa moldatu eta lan egiten jarraitu ahal izateko. Gastu horiek arintze aldera, Lasarte-Oriako Udalak dirulaguntza-lerro bat onartu du: establezimendu bakoitzak 1.500 eurora arteko ekarpen bakar bat jaso ahalko du. Deialdia 28.601 eurokoa da eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Inguruneko Sailak finantzatu du.

GAO Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ditu oinarriak Udalak. Dirulaguntza eskatzeko azken eguna maiatzaren

31 izango da, astelehena, egun hori barne. Honako hau da xedea, Udalaren hitzetan: "Lasarte-Oriako enplegua, jarduera ekonomikoa eta sektoreen lehiakortasunaren dimentsioa mantentzeko aukera emango duen tokiko jarduera sustatzea eta aldatzea".

### Ekarpena jasotzeko baldintzak

Dirulaguntza hori eskatu ahalko dute txikizkako merkataritzaren, ostalaritzaren zein zerbitzu pertsonalen sektoreetako pertsona fisiko edo juridikoek, baldin eta hamabost langile edo gutxiago badituzte. Baldintza gehiago ere bete beharko dituzte. Esate baterako, negozioetan egindako inbertsioak egin izana 2020ko

martxoaren 14tik 2021eko maiatzaren 15era. Fakturen eta ordainketen datak aldi horretakoak izan beharko dira.

Lasarte-Oriako Udalak jakitera eman duenez, diruz lagundu daitezkeen jarduerak "lotura zuzena" izan beharko dute COVID-19ari aurre egiteko hartu beharreko neurriekin, baina ez dira barruan sartzen musukoetan, geletan, eskularrietan, mantaletan eta antzekoetan egindako gastuak. Hauek, ordea, bai: lokalak eta lan egiteko moduak egokitu izana, bezeroekiko eta hornitzaileekiko harreman berrietarako espazio gehiago moldatu izana, eta baita osasun-protokoloak betetzeko egindako inbertsioak ere.

## Oso poliki, baina beherantz

Koronabirusaren laugarren olatuak goi-goian egoten segitzen duen arren, badirudi apurka-apurka jaisten ari dela marea, Lasarte-Orian behintzat. Edonola, beherantzko joera hori oso apala da oraindik. Intzidentzia-tasa metatua, esate baterako, 626,84koa izan da asteazkenean, maiatzak 5 –datu horiek izan dira TXINTXARRI-K kontsultatu ahal izan dituen azkenak, edizioa itxi aurretik–.

Apirilaren 28an, astebete lehenago, berriz, 661,59koa. Zazpi egun horietako batzuetan 700ekoa baino altuagoa izatera ere iritsi da. Otsailaren 8tik ez zen muga hori gainditzen gure herrian.

Maiatzaren 5era arteko datuak eskuetan, urteko bosgarren hilabetearen 26 positibo erregistratu ditu Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak Lasarte-Orian. Intzidentzia-tasa kalkulatzeko erabiltzen diren

hamalau egunetan, apirilaren 22tik maiatzaren 5era, aldiz, 119.

Maiatzaren 9an bertan behera utziko du Espainiako Gobernuak 2020ko urriaren 25etik indarrean dagoen alarma-egoera. Baliorik gabe geratuko lirateke etxeratze-agindua, itxiera perimetrala eta bilerak egiteko mugak bezalako neurriak, baina Eusko Jaurlaritzak iragarri du dekretu bat prestatu eta gaur egun indarrean dauden mugak mantenduko dituela. Epailiek berretsi behar dituzte, hori bai.



Usurbilgo Lanbide Eskolako hainbat ikasle, solasaldi bat entzuten. USURBILGO L.E.

## Ate irekien jardunaldiak maiatzaren 12an eta 15ean

Usurbilgo Lanbide Eskolako jardunaldi horiek aurrez aurre egin nahi ditu, "egoerak uzten badu behintzat"

### Txintxarri

Datorren ikasturtera begira, ate irekien jardunaldiak egingo ditu Usurbilgo Lanbide Eskolako maiatzaren 12an (arratsaldean) eta 15ean (goizean). Asteazkena eta larunbata izango dira, hurrenez hurren. Hezkuntza-zentro horrek adierazi duenez, topaketa horiek aurrez aurre egingo ditu, "egoerak uzten badu behintzat". Jardunaldi horietan parte hartu nahi dutenek [www.lhusurbil.eus](http://www.lhusurbil.eus) helbidean sartu beharko du. "Bisitariak talde txikietan banatuko ditugu".

Aurrematrikula-epea ekainean zabalduko bada ere, ikasleak hasi dira 2021-2022 kurtsotik aurrera egin nahi duten ibilbidean pentsatzen. Usurbilgo Lanbide Eskolan Goi Mailako zein Erdi Mailako ikasketak egin ditzakete. Hauek dira aukeratu ditzaketen zikloetako batzuk: Administrazio Kudeaketa, Instalazio Elektriko eta Automatikoak, Mekanizazioa

(horiek guztiak, Erdi Mailan); Eguzki Energia Termikoa, Energia Berriztagarriak, Instalakuntza Termikoen Mantenua edo Fluido Instalakuntzen eta Instalakuntza Termikoen Mantenua, berriz, Goi Mailakoak dira.

### Enpresekin harreman "estua"

Ikasleek "aukera zabala" daukate enpresetan praktikak egiteko. Alde batetik, betiko praktikaldia: bigarren kurtsuan, hiru hilabetez jarduten dira enpresa batean. Bestetik, Dual programan ere parte hartu dezakete: urte oso batean zehar lana eta ikasketak uztartzen dituzte.

*Enpresan Prestakuntza* ekimena azpimarratu du ULEk. Horren bitartez, ikasleek zikloa hasten duten unetik uztartu ditzakete ikasketak eta praktikak: asteen sei orduz, arratsaldeetan, enpresetan aritzen dira lanean.

## ELOP: "Herri-galdeketa emaitza etsigarria izan da"

Ezkerreko alderdiak joan den igandean egindako edukiontziei buruzko herri galdeketa inguruko irakurketa "negatiboa" egin du.

Hedabideetara bidalitako idatzian jaso dutenez, alderdiaren ustez, udal gobernua "ahalegin handiagoa" egin behar zuen "ekimena zabaltzeko eta horren publikitatea egiteko", erabaki

loteslea izan zedin ezarritako %30eko parte-hartzera iristeko.

Horrekin batera, lortutako emaitzak "batere eztaba daezinak" ez direla ere nabarmendu dute. Izan ere, %56k kentzearen alde egin dute eta %44k edukiontzia mantentzea nahiago du. Hortaz, egoera "zegoen leku berean" geratu da; eta "etsigarria" deritzote.

Edonola, eskerrak eman dizkiete igandean bozketa mahaletara joandako herritar guztiei, udalerrian burututako lehen herri kontsultan parte hartu izanagatik.



# Eremu sozioekonomikoan eragiteko gakoez hizketan

Udaltop jardunaldiek hartu dituzte asteazken eta ostegun goizak, asteon. Iragan urtean bezala, aurtengo saioak ere birtualak izan dira, pandemiak eragindako egoerak hala behartuta. Bederatzi hizlarik hartu dute parte aurtengo edizioan

## Txintxarri

Asteazkenean, 09:00etan egin duten ongiatorriaren ostean hasi dira aurtengo parte-hartzaileen hitzarteak, eta, horien artean Miren Dobaran, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea izan da hitza hartzen lehena. *Euskara eremu sozioekonomikoan sustatzeko plana 2020-2023* izan du hizpide. Plan horrek biltzen ditu Hizkuntza Politikarako Sailaren eskumen eta zereginak, baita Eusko Jaurlaritzarenak bere osoan gainditzen dituzten proposamenak ere. Lan munduan eragingo duten estrategiek gizartea ere bere osotasunean ukitu behar duela azpimarratu du sailburuordeak. Azaldu du entitate guztiek ez dituztela ardura eta erantzukizun berdinak izango eremu sozioekonomikoan euskararen erabilera ezartzeko hizkuntzen kudeaketa garatzeko jardunean, baina guztiek dutela zeresana eta egitekoa. Bide horretan, Eusko Jaurlaritzak, lidergoa erakutsiz eredugarri izan behar duela ere azpimarratu du: "Administrazioari dagokio lehenik, herritarren hizkuntza eskubideak bermatu eta lan-hizkuntza euskara izan dadin sustatzea".



Miren Dobaran Hizkuntza Politikarako Sailburuordea, bere hitzaldian. UDALTOP

Dobaranen hizketaldiaren ostean, Juanjo Allur Siadeco ikerketa elkarteko kidearena hasi da eta *Eremu sozioekonomikoan eragiteko udal mailako plan prototipo bat*-en inguruan aritu da. Eremu horretan euskara sustatzeko estrategien gaineko gogoeta egin du, bere ponentzia lau ataletan banatuta.

Eguerdian, berriz, Ander Bergara Emakunde Emakumearen Euskal Erakunde ordezkariek hitz egin du. Erakunde plublikoen jardunean genero-ikuspegia

txertatzea sustatzeko Emakunde egiten duen lanaren inguruan aritu da. Egindako lanaren alderdi nabarmenak ezagutarazteko helburua izan du bere hitzaldiak.

Osteguneko hitzaldietako bat Rita Aldabaldetrek Euskaltzaleen Topaguneko ordezkariera izan da. Euskaraldiaren bigarren edizioak ariguneen proposamenak entitateak aktibatu eta hizkuntza ohiturak aldatzeko bide berriak zabaldu dizkiela azpimarratu du. Horrekin batera, euskararen gaia mahai eta alor berrietara heldu dela ere nabarmendu du.



NEURE KABUZ

AIZPEA AMAS

## Amaren Eguna

'Zorionak ama!' batekin esnatu ninduten, igandean. Ez nintzen gogoratu ere egiten. 'Ama ere zoriondu beharko dut' pentsatu nuen nire artean. Igande arratsaldea elkarrekin pasatu genuen, eta segurtasun aholkuei momentu batez itzuri eginez, besarkada bat ere eman genion elkarri. Pandemia dela eta, ama ikusterik ez duten horietaz gogoratu nintzen. Zenbaterik pasatu ote dituzte hilabeteak eta hilabeteak besarkada bat emateko aukerarik eduki gabe?

Etxera bueltatzerakoan, Zumaburuko plazan, ama-emeak ikusi nituen banku batean eserita. Amak lore sorta eder bat zeraman eskuan. Auskalo noiztik ariko zen hura eusten, bankuaren albo batean uztea esker txarrekoa izango balitz bezala. Semeek edozein bazterretatik bildutako loreak ematen dizkidatenean gauza bera pasatzen zait, non utzi ez dakidala, ximel-ximel eginda bukatzen dute eskuetan. Nolakoak diren/garen amak...

Aurten, Amaren Eguna Maiatzaren Lehenaren biharamunean tokatu da. Izan ere, Aitaren Egunak ez bezala, ez du egun propiorik amarenak, eta maiatzeko lehenengo igandean ospatzen da.

Hala ere, Langileen Eguna eta Amaren Eguna asteburu berean kointziditu izanak zer pentsatua eman dit. Inork ez du Langileen Eguna loreak oparitzuz edo pastel bat janez ospatzen. Egia da, Amaren Egunaren funtsa esker ona adieraztea izaten dela, baina amak kalera ere irtengo bagina? Langileek bezala, amek ere badugulako zer aldarrikatu; hala nola, kontziliatzeko neurri gehiago—hamar ametatik seik beren lan ibilbideari uko egin diote seme-alabak zaintzeko—, zaintzaren erantzukidetasunerako baliabideak, eta, zergatik ez, sei hilabeteko baimena edoskitzearengatik. Gora amen borroka!

## Mugikortasunaren inguruko iritziak jasotzeko azken egunak

Lasarteoriatarrek egungo mugikortasunari buruz pentsatzen dutena jasotzeko asmoz, parte-hartze prozesu bat zabaldu zuen udalak apirilaren 30ean. Bi aste iraungo ditu prozesuak. Hortaz, maiatzaren 14ra arte horretan parte hartzeko aukera dute herritarrek.

Prozesuan parte hartu nahi dutenek hainbat modutan egin

dezakete. Adibidez, [www.lasarteoria.eus](http://www.lasarteoria.eus) web-orritik deskargatu dezakete galdetegia, bete, eta udaletxeko erregistroan entregatu. Horretarako, 943 37 60 55 telefonoan hitzordua hartu beharko dute. Tramitea presentzialki egin nahi edo ezin duten lasarteoriatarrek aukera dute telematikoki egiteko: B@kg, Izenpe, NAN elektronikoa edo antzeko identifikazio elektronikoren bat erabili, eta udalaren atari digitalera igo beharko dute galdetegia.



## BEGIRALE LAN-POLTSA

(Udako Txoko eta udalekuetarako)

**18 urte baino gehiago badituzu eta udaran begirale izan nahi baduzu, bidali eskaera-orria beteta maiatzaren 9a baino lehen.**

**BALORATUKO DIRA:** -Begirale edo zuzendari titulua. - EGA edo baliokidea den agiria. - Ikasketak. - Lan esperientzia.

**BEHARREZKOA:** -Sexu delitua egiteagatik aurrekari penalak ez dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Eskaera orria: <https://labur.eus/ttakunbegiraleak2021>  
begiraleak@ttakun.eus | Geltoki 4 Lasarte-Oria | 943 37 14 48



## Zozketa!

**EÑAUT ELORRIETAK Manuel Lekuona kultur etxean eskeiniko duen KONTZERTU AKUSTIKORAKO bi sarrera zozkatuko ditugu izena ematen duzen bazkideen artean.**

\* Eman izena maiatzaren 23a baino lehen.

harpidetza@ttakun.eus helbidean edo 646. 82 44 66 (whatsapp)



# Ahotsak bizirik nahi dituztela aldarrikatu dute

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioaren deia erantzunez, Donostiako 'Manifes-Topaketa' deituriko protestara batu da Lasarte-Oriako Alboka Abesbatza ere. Zuloaga plazan elkartu dira, San Telmo museoaren aurrean egin dituzte euren aldarrikapenak

## Txintxarri

Gipuzkoako abesbatza amateurrek protesta ekitaldia egin dute. Donostiako Zuloaga plazan elkartu dira, San Telmo museoaren aurrean, ahotsak bizirik nahi dituztela aldarrikatzeko. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak deitutako *Manifes-Topaketari* erantzunez elkartu dira mobilizazioan, eta Lasarte-Oriako Alboka Abesbatzaren ordezkariek ere bertan izan dira. *Kantatuz bai, ixilik ez* irakur zitekeen bertaratu zirenek eskuartean hartu dituzten banderoletan. Manifestu bat ere irakurri diete protestara batu direnei.

Euren "ezina" adierazteko protesta ekitaldi bat izan dela azaldu du Alboka Abesbatzak. Ezinegona adieraztearekin batera, "beste kultura talde batzuen aldean jasaten duten diskriminazioa" ere salatu dute. Bere egoera zehatzaren berri eman du Albokak. Jakinarazi dutenez gaur gaurkoz ez dute entseguak eta kontzertuak egiteko baimenik, pandemia hasi zenetik, uneoro indarrean dauden osasun-arauak zorrozki bete dituzten arren.

Gipuzkoa eremu gorrian dagoenez eta itxiera perimetralak indarrean daudenez, Alboka Abesbatzako



'Manifes-topaketa' egin dute abesbatzetako kideek, Donostian. ALBOKA ABESBATZA

ordezkaritza bat besterik ez bertaratu mobilizaziora: "Zuzendaritza batzordeak ordezkari talde txiki bat izendatu zuen ekitaldira joateko, akreditazioa behar bezala eramanez".

Aldarrikatu dute, besteak beste, ahotsak bizirik nahi dituztela eta beharrezkoa dela euren zat aspalditik hitzartutako kontzertu eta elkartrukerari berrekitea, "beranduegi baino lehen".

Agintari eskumendunek igandeko protestan egindako

aldarrikapenak entzun eta kontutan hartuko dizkietela espero dute abesbatzako kideek: "Gure eskaerak entzungo dituztela, eta, luze gabe, berriz ere hainbeste maite dugun aurrez aurreko abesbatza jardueran hastea espero dugu".

Abesteko tarte bat ere hartu dute Zuloaga plazan batutako kideek. Kantu ezagunak abestuz amaitu zuten protesta ekitaldia. Mikel Laboaren *Txoriak txori* eta Alexandre Lesbordesen *Kantuz* aireratu dituzte, denek elkarrekin.

## Biyak Bat egoitzako taberna berriki dute aste honetan

Gaur-gaurkoz indarrean dauden neurri murriztaileetara moldatu dute egoitza tabernaren jarduna

## Txintxarri

Biyak Bat egoitzako taberna martxan dago berriro, hilabete askoren ostean. Gaur egun indarrean dauden neurrietara moldatu dute jarduna: 09:00etatik

21:00etara lan egingo dute terrazako zerbitzua eskaintzen, eta mugatu egin beharko dute barrualdekoa, 13:30etik 16:30era. Goizetan ere ordu erdiz gosariak emango dituzte lokal barruan, 09:30ak arte.



Egoitzako taberna irekita. ISAAC FARRE



Duela bi urteko lehiaketako parte-hartzaileak eta irabazleak. TXINTXARRI

## Literatura-lehiaketara lanak aurkezteko epea zabaldu dute

Lasarte-Oriako haur zein helduek maiatzaren 21era arte izango dute lehiaketarako lanak aurkezteko aukera

## Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak zabaldu du literatura-lehiaketara lanak aurkezteko epea. Maiatzaren 21era arte izango da horretarako aukera, eta, gogorarazi dute lehiaketara aurkezten diren lanak jatorrizkoak izan beharko dutela. Sari banaketa, azaroan egingo dutela ere iragarri dute.

Urtero bezala, gaztelaniazko zein euskarazko poesiarako,

ipuinetarako eta mikro-kontakizunetarako sariak banatuko ditu aurrean ere udalak. Maiatzaren 21ean amaituko da 2021eko literatura-lehiaketara lanak aurkezteko epea.

Bi kategoriatan banatuko dute lehiaketa: haurrentzako lehiaketa eta helduentzako. Honak hauek dira kategoriaren bakoitzean lehiatu ahal izateko baldintzak, aukerak eta sariak.

## Kategoriak

### Haurrentzako kategoria:

**A kategoria:** 2012. urtean eta hurrengoetan jaiok.

Euskarazko ipuina (gai librea, gutxienez folio bat)

**B kategoria:** 2009, 2010 eta 2011. urteetan jaiok

Euskaraz ipuina (gai librea eta gutxienez bi folio)

**C kategoria:** 2006, 2007 eta 2008. urteetan jaiok:

Euskaraz ipuina (gai librea, gutxienez hiru folio)  
Poesia euskaraz (gai eta metrika libreak, gutxienez 60 bertso-lerro)  
*Espezialitate eta kategoria bakoitzeko sari hauek zehaztu dituzte:*

1. saria: 200 euro eta diploma.

2. saria: 150 euro eta diploma.

3. saria: 100 euro eta diploma.

### Helduentzako kategoria:

**Poesia euskaraz.** Gai, metrika eta hedadura libreak.

Saria: 650 euro eta diploma.

**1995 eta 2005 urte bitartean jaiotakoentzat euskarazko poesiako Lasarte-Oria saria.**

Gai, metrika eta hedadura libreak.

Saria: 650 euro eta diploma.

**1995 eta 2005 urte bitartean jaiotakoentzat gaztelaniazko poesiako Lasarte-Oria saria.**

Gai, metrika eta hedadura libreak.

Saria: 650 euro eta diploma.

**Mikro-kontakizuna euskaraz.**

Gai librea eta gehienez 1.500 karaktere zuriuneak barne hartuta.

Saria: 650 euro eta diploma.

**1995 eta 2005 urte bitartean jaiotakoentzat euskarazko mikro-kontakizuneko Lasarte-Oria saria.**

Gai librea, gehienez 1.500 karaktere zuriuneak barne hartuta.

Saria: 650 euro eta diploma.

**Mikro-kontakizuna gaztelaniaz.**

Gai librea eta gehienez 1.500 karaktere zuriuneak barne hartuta.

Saria: 650 euro eta diploma.

**1995 eta 2005 urte bitartean jaiotakoentzat gaztelaniazko mikro-kontakizuneko Lasarte-Oria saria.**

Gai librea, gehienez 1.500 karaktere zuriuneak barne hartuta.

Saria: 650 euro eta diploma.



# Kukuka: "Erakutsi dugu posible dela"

Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatu du Lasarte-Oriak apirilaren 29an. Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolak, Semblante Andaluzek eta Amaia Gonzalez Caballero akademiak emanaldiak eskaini dituzte Oriarte Landaberri BHI eraikineko patioan

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Kukuka eskolako lagunek dantzan jarri zuten Lasarte-Oria joan den asteko ostegunean, apirilak 29, Amaia Gonzalez Caballero akademiarekin eta Semblante Andaluzekin batera. Egitasmoa antolatzeaz ere arduratu ziren, eta lantaldeko astearteko bileran horri buruz hitz egin ostean, ekitaldiari buruzko balorazio "oso positiboa" egin dute. "Egoera honetan egonda ere, erakutsi dugu posible dela Dantzaren Nazioarteko Egunekoa bezalako ekimenak antolatzea, osasun-neurriak errespetatuz beti ere; aurreneko eragilea izan gara hori egiten".

Eguraldi txarra tarteko, Oriarte Landaberri BHI eraikineko patioan muntatu zuten eszenatokia, Okendo plazan egin ordez. "Metro eta erdiko distantzia mantenduta, gune horretako aforoa 204 eserlekukoa zen, eta eguraldi oso txarra egin arren, aulki bat bera ere ez zen hutsik

geratu". Ikuskizun jendetsu bat antolatzerakoan, aurrenekoz jarraitu du Kukukak osasun-protokolo zehatz bat, eta aurreneko esperientzia horretan ikusi dituzte hobetu beharreko gauzak, ikasgai gisa erabiliko dituztenak datozen hitzorduetara begira. "Laster egingo dugu Antzerki eta Dantza Hamabostaldia, kurso amaierako emanaldiak ere etorriko dira... Argi dugu pandemiaren aurreko formatu hori ezin dugula mantendu, baina gauzatuko ditugu ekitaldi horiek".

Kukuka eskolako kideek eskerrak eman dizkiete apirilaren 29ko emanaldia ikustera joan ziren ikus-entzuleei, "izandako pazientziagatik". Horrez gain,

## HIRU ELKARTETAKO 110 DANTZARIK PARTE HARTU ZUTEN APIRILAREN 29KO EMANALDIAN

Oriarte Landaberri BHIko ordezkari Julen Ollokiegik emandako laguntza "biziki" estimatu dute.

## Emanaldi eta estilo ugari

Kukukako sei taldek, Amaia Gonzalez Caballero Akademiako hiruk eta Semblante Andaluzeko bik parte hartu zuten apirilaren 29ko emanaldian. Guztira, 110 dantzari aritu ziren Oriarteko oholtza inprobisatuan. Euskal dantza tradizionala, euskal dantza sorkuntza, Andaluziako doinuak, koreografia garaikideak... Ikus-entzuleek estilo ugari ezagutu zituzten, eta txalo eginez saritu zuten dantzarien lana.

Apirilaren 29a izan zen Dantzaren Nazioarteko Egtuna. Urtero-urtero, diziplina horretan aritzen den artista batek idazten du manifestua; aurtengoa, Friedman Vogel alemaniarrak. Emanaldian parte hartu zuten hiru taldeek txandaka irakurri zuten, euskaraz zein gaztelaniaz.



Dantzariak onena eman zuten Oriarte Landaberriko eszenatoki inprobisatuan. TXINTXARRI

## Udal Musika Eskolako aurrematrikulazioa irekitzeaz

Maiatzaren 10etik 19ra bitarte izango dute musika eskolak jaso nahi dituztenek aurrematrikulazioa egiteko aukera

### Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak iragarri du Udal Musika Eskolako 2021-2022 ikasturterako aurrematrikulazio epea maiatzaren 10ean zabalduko duela. Horrekin batera, jakinarazi dute plaza eskaera hori egiterako momentuan, kuota osoaren %10 ordaindu beharko dutela.

Maiatzaren 10etik 19ra egongo da zabalik Udal Musika Eskolan, datorren ikasturterako aurrematrikulazioa egiteko epea.

Matrikula egiteko epea, berriz, ekainaren 7tik 18ra bitartean izango da, baina tramite hori egin ahal izateko nahitaezkoa izango da alde aurretik aurrematrikula eginda edukitzea. Jakinarazi dute baita ere, plazan adjudikazioa posta bidez konfirmatuko dutela.

Plaza baten eskaera egiteko unean, dagokion kuotaren % 10 ordaindu beharko dute interesatuek, udalak horretarako eskuragarri jarriko duen kontu korrante zenbakian, eta

matrikulatu egin ahal izateko derrigorrezkoa izango da ordainketa hori egin edukitzea. Aurrez ordaindutako kopuru hori, kasu bakoitzari dagokion matrikularen lehenengo ordainketan deskontatuko dute. Hori bai, eskaera egin eta gero matrikula formalizatzen ez dutenek ez dute aurrematrikulan ordaindutako diru kopurua bueltan jasotzeko eskubiderik izango.

### Hobariak

Jakinarazi dute salbuespenak eta hobariak daudela Gizarte-Larrialdietarako Laguntzen (GLL) prestazioak jasotzen dituztenentzat eta langabetuentzat. Horrez gain, udalak edo Eusko Jaurlaritzak ematen duen Gazte Txartelaren titularrek % 10eko deskontua

izango dute, eta familia ugariak, berriz, % 30eko hobaria.

Kuotetan hobariak eskatu ahalgo dituzte baldin eta unitate familiarreko bi kide edo gehiago matrikulatzen badira Eskolan.

### Tasen ordainketa

Tasak bankuko domizilazioaren bidez ordaindu beharko dira. Bi aukera izango dira; ordainketa bakarraren kasuan irailaren 25etik 30era egin beharko da, eta ordainketa-zatikatu, aldiz, matrikula egiteko unean matrikularen ordainketa hileroko 10 kuotatan zatikatu ahalgo da (irailtik ekainera). Kuota horiek udalak hileroko 25. egunetik 30.era bitartean kobratuko ditu. Libre geratzen diren plazak irailen esleituko dituzte, eskaerak iristeko ordenaren arabera.

## Tasak

### Musika-txokoa:

285,35 euro erroldatuek / 343,30 euro ez erroldatuak

**Hizkuntza musikala:** 285,35 euro / 343,30 euro.

**Musika-instrumentua:** 285,35 euro / 343,30euro.

**Txistua edo akordeoia:** 223,45 euro erroldatuek.

**Hizk. musikala + instrumentua:** 528,65 euro / 641,60 euro.

**Hizk. musikala + txistua edo akordeoia:** 414,30 euro erroldatuek.


**Korua:** 47,80 euro / 58 euro.

**Ganbera:** 143,50euro / 172'30euro.


**Instrumentu-taldea:** 94,15 euro / 114,45 euro.



**Pareak bai!** Afrikako animalia ugari ezagutzen duzu. Froga ezazu orain, zenbat dakizun zure inguruko zuhaitzez. Lotu zuhaitz bakoitzari dagokion fruitua.



Sudokua



Ezagutzen al duzu udaberria esateko beste modurik? Beharbada zure herrian ez, baina BEDATSE ere esaten zaio, edo BEDATS. Osa itzazu sudokua lau zuriak BEDATS hitza osatzen duten letrak kontuan hartuta (B, E, D, A, T eta S). Gogoratu, sudokua zuzena izan dadin, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

**IKUSI-MAKUSI** Horra gure aitona-amonen aitona-amonek beren haurtzaroen landatutako zuhaitza. Ikaragarri handitu da, ezta? Eta gainera, paisaiaren antzaldaketaren lekuko isila izan da. Ezer ez da lehen bezalakoa, baina badira hainbat elementu bi irudietan ageri direnak. Bederatzi dira. Ikusten al dituzu?





# Labirintoa

Etxe-txolarreak beheko teilatupean egin nahi du habia. Lagun iezaiozu haraino heltzen. Horretarako, habia egiteko baliatuko dituen elementuak jarraitu beharko dituzu, orden honetan: belarra (1), hosto lehorra (2), lastoa (3) eta luma (4). Gogoratu laukiak banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean.

Aurkitu duzu bidea? Hala bada, laukiz lauki pasa dituzun hizkiak batu eta esaera zahar bat osatuko duzu:

# Handitik txikira

Zazpi hosto hauek denak indigaztainondoarenak dira. Ordena itzazu handitik txikira, handienari 1 zenbakia emanaz eta txikienari 7.

# Itzala

Margotu erlea eta arrosa eta aurkitu itzal zuzena.



# Lekukoa uzteko unea iritsi da

Azkorteko Baselizaren Lagunak elkarteak urte askotan lagundu du Urnietako eta Lasarte-Oriako biztanleentzat tradizio bilakatu den ospakizuna antolatzen. Sebastian Kerejeta herritarraren eskutik jakin ditu TXINTXARRI aldizkariak errotutako usadio horri buruzko nondik norakoak

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Azkorteko Baselizaren Lagunak elkarteak jarduna etetea eta lekukoa uztea erabaki du, hainbat hamarkadaz Santikutz eguna (maiatzak 3) izan eta hurrengo igandeko ospatzeko elizkizuna eta hamaiketako antolatzen lagundu ostean. Naturala izan da erabakiaren arrazoia, bizitzak eta denboraren joan-etorriak berak eragindakoa. Azken urteetan gero eta kide gutxiago elkartzen ziren ermitan, mezaren ostean, sabela betetzeko hamaiketako ederra egin eta kontu-kontari aritzeko. Gaur-gaurkoz, Sebastian Kerejeta (Lasarte-Oria, 1934) da bizi den kide historiko bakarra; beste guztiak zendu egin dira honezkeroko.

Kerejetarekin elkartu dira *El Diario Vasco* egunkarirako Lasarte-Oriako kronika egiten duen Txema Valles eta erreportaje honen lerroak idazten ari den kazetaria, ordubete inguruz. *Gozamen hutsa* izan da herritarraren bizipenak, anekdotak eta istorioak entzutea. Utziz gero, bi orri ez, hamasei ere idatziko lituzke TXINTXARRI-k erraz asko. Oraingo behintzat, Lasarte-Oriako historiaren zati den ospakizun berezi horri buruz hitz egingo dugu, eta baita antolaketa-lanetan jardun duten pertsonen ere.

Sebastian Kerejetak artikulua bat baino gehiago idatzi izan du gai horri buruz TXINTXARRI-n. Horieta bati, 1999ko apirilaren 30ean: "Azkorteko baselizak sei mendetik gora ditu", zioen titularrean. Manuel Lekuona zenak gai horri buruz idatzitakoari aipamena eginez, Azkorteko ermitari buruzko aurreneko erreferentziak XIV. mendeko zenbait ikerlariek egin zituzten. "Aspaldiko ohitura" omen da Santikutz egunean baselizara igo eta maiatzaren

3a giro ederrean ospatzea. Urnietako eta Lasarte-Oriako bizilagunek parte hartu izan dute ekintza berezi horretan.

Gaur egun, Urnietako arduratzen da Santikutz eguneko ospakizunaz; lasarteoriatarrek, berriz, hurrengo igandean joaten dira. 1848. urtean adostu zuten horrela egitea, Oriako auzotar ugarik Brunet oihal-fabrika ezagunean lan egiten zutelako, eta, egun berezi hori asteguna izanez gero, ezin zutelako baselizara igo eta ospakizunetan parte hartu. "Auzotar horiek gurtu egiten zuten ermita, eta Urnietako erretorearengana joan ziren, eskatzera baseliza uzteko mesedez, Santikutz egunaren osteko igandean meza egin ahal izateko", jakinarazi du Kerejetak. "Baietz erantzun zien elizgizonak, baina baldintza batekin: haiek antolatu behar zutela guztia, eta gero, ermita garbi utzi".

Ermita egun berezi horretan erabiltzeaz gain, mantenu-lan ez arduratzen ziren herritarrak. Arestian aipatutako artikuluan, 1999an idatzi zuen horretan, Kerejetak zehatz-mehatz deskribatzen du zer nolako laguntza eman zuten zenbait baserriarrek: Oria-Txikitik -Oriako frontoiaren aurrean zegoen - idi eta behiekin abiatu eta teilak garraiatzeaz arduratu ziren. 1911n ekin zioten baseliza berritzeari. Urte batzuk lehenago, 1833 eta 1839 urteen arteko gerra karlistan, ermita erretzea agindu zuen Leopoldo O'Donnell

**AZKORTEKO ERMITARI BURUZKO AURRENEKO ERREFERENTZIAK XIV. MENDEKO IKERLARIEN JASO ZITUZTEN**

jeneralak. "Herritarrak zeharo lur-jota geratu ziren", Kerejetak artikuluan esaten duenez.

## Azkorteko Baselizaren Lagunak

Arbasoek ospatutako hori "tinko" mantentzeaz arduratu dira azken hamarkadetan Azkorteko Baselizaren Lagunak elkarte osatu duten kideak, Goikoetxe (erregistroan izen honekin azaltzen da, baina Bitoria Enea ere deitzen zaio) baserriko Sebastian Kerejeta barne. "Baselizaren iparraldeko baserriarrek eta Lasarte-Oriako zenbait bizilagunek parte hartu izan dute batzordean", gogoratu du. Baserrien izenak aipatzen hasi da gero, eta bota bezala jaso ditugu artikulua honetan: Zabaleta, Sausta Haundi, Bernarda Enea, Miracampos, Elkezabal, Telleri, Zapal, Oria Gain, Goikoetxe, Zapal, Baso Haundi eta Garratza.

Meza antolatzerakoan, apaiza bilatu behar izaten zuten elkarte kideek. Gipuzkoan barrena ibiltzen ziren, herriz herri eta ordenaz ordena, pertsona hori topatu arte. "Tolosako sakramentinoak, Donostiako Amara auzoko kaputxinoak... Kongregazio askotako elizgizonak eman dituzte mezak Azkorteko baselizan". Kilometro ugari eta izerdi asko botatzen zuten zeregin horretan, urte batean Urnietako erretore On Iñaki Aranzadik horren berri izan eta honakoa esan zien arte: "Baina nola urtez urte apaiz bila ibiltzen zaretela? Azkorteko baseliza nire barrutiaren baitan dago, eta niri dagokit bertako elizkizunak gidatzea".

On Iñakiri buruz hitz egitean, anekdota bat etorri zaio burura Kerejetari. Barre egin, eta kontatzen hasi da: "Meza hasi aurretik, prestaketa-lanak egin genituen elkarte kideok, eta beranduago banatu beharreko



Azkorteko Baselizaren Lagunak elkarte kideak hainbat ordezkari (Sebastian Kerejeta tartean, eskuinetik hasi)

ostia-zatiak aldarean zegoen mahaiaren azpian utzi genituen; bedeinkazioa emateko orduan ez genituen igo, eta Iñakik, hori ikusita, banatzeko modukoak ez zirela erabaki zuen".

## 1970. urteko hondamendia

Apaizek, normalean, baseliza barruan eman izan dituzte mezak, baina ez beti. 1970. urtean, inguruko harrobi baten zulatze-lanen ondorioz, ermita eusten zuten harkaitzak suntsitu eta amildu egin zen eraikinaren zati bat. Hiru urte behar izan zituzten eraikina berriz altxatzeko, baina tarte horretan jarraitu zuten Santikutz egunaren bueltako ospakizunak egiten. 1970tik 1972ra arteko elizkizunak, esaterako, baselizako atarian egin ziren.

TXINTXARRI aldizkarian 1999an idatzitako artikuluan Kerejetak esaten duenez, ermitan gertatutakoa "sinetsi ezinik"

**AZKORTEKO LAGUNEN ELKARTEAK MEZA EMATEKO APAIZA BILATU BEHAR IZAN DU HAINBAT URTETAN**

geratu ziren Urnietako eta Lasarte-Oriako bizilagunak, baina, Urnietako Udalaren eta auzotarren lanari esker, 1973. urterako berreraiki zuten. "Eliza berria egiteko lanak Urnietako udalak ordaindu zituen, baina aipatzekoa da, berriz ere, arbasoen ohiturari jarraituz, inguruko herritarrek auzolanean eskaini zuten laguntza, elizaren barruko garbiketetan edo atariko txukunketa lanetan, baita behar ziren altzariak erosteko dirulaguntza emanez ere".

1999tik, 2021era berriro. Karpeta batetik liburuxka zahar bat atera du Kerejetak. Ireki, eta urteek horitutako orrietan 1973. urteko erregistroa irakur daiteke: herritarren izen-abizenak, eman zuten diru kopurua... Azkorteko Baselizaren Lagunak taldeko kideak azaldu duenez, urte luzez Miracampos baserrian gorde dute koadernoak, eta hemendik gutxira haiei itzuliko die: "Zuei erakusteko asmoz ekarri dut".

Anekdota, pasadizo eta bizipen ugari partekatu ditu Sebastianek bi kazetariekin. Azkorterri buruzkoak gehienak, baina baita beste alor batzuetakoak ere. "Eragile eta elkarte ugaritan ibili





(inietik hasita bigarrena) bildu izan dira Azkorteko basilizan, mezaren ostean hamaiketako egiteko. Argazkia 2005. urtekoa da. TXEMA VALLES

naiz, baita ardurako postuetan ere, nahiz eta nik nire burua sekula aurkeztu ez dudana". Ttakun Kultur Elkarteak da horietako bat, bera izan baitzen aurreneko lehendakaria, 1991tik 2003ra.

#### Ttakun KE ere, antolaketan

Azken urteetan maiatz hasieran Azkorteko ermitara joan eta Santikutz egunaren bueltako ospakizunetan parte hartu duenak badaki Ttakun Kultur Elkarteak arduratzen dela erromeria antolatzeaz: trikitilariak eta pandero-joleak, Alboka abesbatza, bertsolariak, herri-kirolak, indarrak berritzeko salda, pintxo eta sagardo freskoa... TXINTXARRI-ren artxiboa arakatu bitartean, Sebastianek 1999ko apirilaren 30ean idatzitako artikulua horren ondoan, zatidura batean, grisez, honako hau irakur daiteke: "Ttakun KEk antolatuko du erromeria lehendabiziko aldiz". Lasarte-Oriako Udalak hala eskatuta, herriko euskara-elkarteak hartu zuen egun horri ospakizun-ukitua emateko ardura. Zenbait urtez Elorria baserrian gauzatu zuten hori; handik urte batzuetara, etxealdea botata zegoenean, ermita kanpoaldean.

Aurreko paragrafoan aipatu dugu Azkorteko basiliza inguruan ospatzen den festako ekintzak zeintzuk diren. Hori ere aldatu egin da denboraren poderioz. "Basarri eta Uztapide bertsolariak ikusi izan ditut nik kantatzen, bata bestearen ondoan; urte batzuetan plater-tiroa bezalako lehiaketak ere egin izan dira", gogoratu du Kerejetak. "Bola-jokoan aritzeko aukera ere izaten zen, eta eskopeta edo fusil berezi batekin dianari tiro egiteko txapelketa ere izaten zen, *terreroa* etortzen baitzen".

COVID-19aren pandemiak, beste alor guztietan bezala, festetan eta ospakizunetan eragin du: 2020an, bakoitzak bere etxetik gogoratu behar izan zuen egun berezi hori zertan den; aurtan, osasun-egoera une hauetan nolakoa den aintzat hartuta, sinbolikoki ospatu du Santikutz eguna Ttakun Kultur Elkarteak, eta basiliza ingurura

### TTAKUN KE-K 1999. URTETIK ANTOLATU IZAN DU AZKORTEKO ERROMERIA; EGUN, HORRETAN DIHARDU

hurbildu ziren herritarrei aukera eskaini zien barrura sartu eta ermita barrutik ikusteko.

#### Etorkizunean, zer?

Ikusteke dago 2022ko maiatzean zer egoeratan egongo den COVID-19aren pandemia, baina, ohiko egitaraua berreskuratzea posible izanik ere, Azkorteko Basilizaren Lagunak elkarteak ez du ekintzen antolakuntzan parte hartuko, eta meza ostean ez da hamaiketako egitera bilduko. Batzorde horretan parte hartu izan duten baserrietako ordezkariekin bildu da Sebastian Kerejeta, eta guztiek adostu dute iritsi dela ordua lekukoa uzteko eta orain arte egin izan duten lana egiteari uzteko.

Urteak joango dira, eta iritsiko dira belaunaldi berriak, gaur egungoen testigua hartuko dutenak. Kontuan izan dezatela esaldi hau: "Izan bedi Azkorte, 600 urtean izan den bezalaxe, beste 600 urtean, herritarren a d i s k i d e t a s u n a eta elkarrenganako maitasuna jorrazteko bide eta gai". Horrela itxi zuen Sebastian Kerejetak 1999ko artikulua, eta horrela amaitu du TXINTXARRI-k 2021eko.

## Baselizaren historiaren zati bat



Azkorteko basilizaren zati bat erori egin zen harrobiko lanen ondorioz. TXINTXARRI

**Ermitearen zati bat, jausita.** TXINTXARRI aldizkariako artxiboan topatu dugu argazki historiko hau. Azkorteko basilizatik gertu dagoen harrobi baten zulatze-lanen ondorioz, ermita erdia erori egin zen 1970. urtean, erromeriara bertaratu zirenen harridurarako.



Azkorte berreraikitze lehen harriak jartzen. TXINTXARRI

**Berreraikitze-lanak** Basilizaren zati bat erori eta hiru urtera altxa zuten berriro Azkorteko ermita. Berreraiki ahal izateko bidean berebizikoa izan zen hainbat eta hainbat boluntariok egindako lana; ekarpen ekonomikoak ere egin zituzten, altzariak erosteko.



1970. urteko Santikutz eguneko meza Azkorteko atarian eman zuten. TXINTXARRI

**Mezak, Azkorteko atarian** Harrobiaren zulatze-lanen ermitaren zati bat eroriarazi arren, handik eta basiliza berriro eraiki arte, Urrietako eta Lasarte-Oriako herritarrek Azkorterara joaten jarraitu zuten maiatz hasieran. 1970 eta 1972 arteko elizkizunak basilizako atarian eman zituzten apaizek.





Bidasoa XXI taldean lanean ari dira Ainhoa eta Leire Martin ahizpak. TXINTXARRI

# "Espainiako Openean aurreikuspenak hobetu genituen"

## AINHOA ETA LEIRE MARTIN IGERILARIAK

Espainiako Udaberriko Openean lan ona egin ostean, neguko denboraldiari amaiera eman diote. Orain Udako Espainiako Txapelketa dute helburu

### Txintxarri

Buruntzaldea IKTh eman zituzten bere lehen besakadak Leire eta Ainhoa Martin (Lasarte-Oria, 2003) ahizpek. Egun Irungo Bidasoa XXI taldean ari dira lanean. Espainiako Udaberriko Openean Espainiako igerilari onenen aurka lehiatu ziren martxoan. Ainhoak absolutu-gazte mailako bost domina jantzi eta 200 metroko bular-proban Euskadiko errekorra berritu zuen; Leirek, berriz, maila bereko hiru brontzezko domina eskuratu zituen. Espainiako Txapelketari eta neguko zein udako denboraldiko helburuei eta etorkizunari buruz egon gara Martin ahizpekin solasean.

### Neguko denboraldia ongi amaitu zenuten. Espainiako Udaberriko Openeko podiumean egon zineten. Ezarritako helburua bete al zenuten?

**Ainhoa:** Gure helburuak markak jaistea, txapelketetarako sailkapenak lortzea da eta ahal bada, lehenen artean podiumean egotea izan ohi dira. Hala ere, gure neguko denboraldiko entrenamenduak eta prestaketa Espainiako Txapelketara bideratuak zeuden. Eta horrela izanik, biek Espainiako Txapelketan hori egin genuela esan daiteke. Horregatik pozarren gaude.

**Leire:** Bai. Biok gure helburua bete dugu. Nik, gainera, ez nuen espero hainbeste probetan lehen

hiruen artean egotea eta markak jaistea.

### Espainiako onenen artean lehiatu zarete eta dominak eskuratu dituzue absolutu-gazte mailan. Espero al zenuten horrelako emaitzarik?

**A.:** Txapelketetarako zerrendak ateratzen direnean, non zauden eta txapelketan zein postutan egon zaitzekeen aurreikusirik ezakezu. Baina pronostikoak hobetu genituen. Ni, esate baterako, bost finaletan izan nintzen lehiatzaile eta bostak A finalak izan ziren.

**L.:** Ainhoak aipatu duen bezala, aurreikuspen bat egin dezakezu. Nik domina espero nuen 2.000 metroko bizkar proban, baina ez lortu nituen hirua. Batez ere, 100 metro bizkar probakoa. Arerio

indartsu asko zegoen eta ez nuen espero.

### Ainhoak, gainera, Euskadiko errekorra ondu zuen 200 m. bular proban. Zer suposatzen du horrek?

**A.:** Horrelako errekorra egitea, motibazio bat da. Horrelako marka bat egin baduzu, zergatik ez berriro hori ondu? Hori ere bada txapelketetarako beste motibazio bat.

### Ainhoan nagusiki bular probak egiten ditu eta Leirek bizkarrekoak. Bakoitza estilo batean espezializatua dagoela esan daiteke?

**L.:** Buruntzaldea IKThn hasi ginen lanean eta bertan Borja Apeztegiaren laguntzarekin bakoitzari hobeto zegozkion probak aukeratu genituen. Horrela nik bizkar probetan lehiatzea erabaki nuen eta Ainhoak bularrekoak.

Baina biek edozein estilo egin dezakegula uste dut. Lau estiloko probak egiten ditugu biok eta estilo onak ditugula esan daiteke. Ni, esate baterako, 200 metroko bular proban ere lehiatu nintzen Udaberriko Openean eta domina lortu nuen.

**A.:** Txikia zarenetik ikusten duzu zer dagokizun hobeto. Eta hobekien doakizuna da entrenatzen duzuna eta gehien gustuko duzuna.

**L.:** Hobetzen zoazela eta aurreko postuetan zaudela ikusteak motibatu egiten du, eta espezializazio horretara darama. COVID-19aren aurkako neurrien eraginez, Espainiako Udaberriko Openean eguneko proba bat izan duzue. Horrek onura ekarri al dizue?

**A.:** Bai, nik horrela dela uste dut. Egun horretako proban arreta gehiago jarri dezakezu. Bi badituzu, pentsatzen duzu: 'Jo, orain proba hau dut, baina gero bestea ere egin behar dut'. Horrek lehen proba egitean, baldintzatzen duela uste dut, beste proban ere pentsatzen ari zarelako eta ez duzulako zure %100 ematen egiten ari zaren proba horretan.

**L.:** Eta azkenean, ez duzu ez bata ez bestean emaitza onik lortzen. Ainhoak egutegi ona izan zuen, egunero proba bat egin zuen, baina nik azken egunean bi proba egin behar izan nituen, 200 metroko bular proba eta 50 metroko bizkarekoa, eta arratsaldeko finaletan bakarra egitea erabaki nuen. Ez nuen baldintzatuta egon nahi eta bular proban lan ona egin nahi nuen. Azkenean gure mailako brontzezko domina eskuratu nuen.

### Horrez gain, Bidasoa XXI taldearekin Espainiako kopan lehiatu eta Ohorezko mailan mantendu zarete. Lehengo astean Euskal Herriko Kopa lehiatu zen eta taldea irabazle izan da. Aldaketarik ba al dago txapelketa batetik bestera?

**L.:** Bai, noski. Presioa duzu lehiatzerako orduan, baina gehiago gozatzen duzu. Igerilari guztiak batera goaz eta elkarri laguntzen eta animatzen diogu. Giro ezberdina da, ez da txapelketetako ohiko giroa.

**A.:** Igeriketa kirol indibiduala da, baina horrelako lehiaketek taldea egiteko balio dute. Bakoitzak bere proba egin behar du, baina taldeko lehia da eta guztiak batera egiten dugu borroka horrelakoetan.

### Neguko denboraldia amaituta udako prestatzen hasiko zineten, ezta?

**L.:** Bai, Udako Txapelketa abuztu hasieran izango da eta proba prestatuko dugu. Baina ez dago presarik eta helburua hobetzen jarraitzea da.

Udan, gainera, dominak garestiago egongo dira, zeren eta absolutu maila bakarrik jokatuko baita. Ez dago absolutu-gazte mailarik. Beraz marka hobetu eta gozatzea izango da helburua.

**A.:** Bi proba nagusi ditugu urtean zehar. Neguko eta Udako Espainiako Txapelketak. Bidean badaude beste lehiaketa batzuk, ez hain garrantzitsuak baina horiek ere prestatzen ditugu. Gainera, horiek eguneroko entrenamenduetan onena emateko motibatzen gaituzte.

### Abuztua aipatu duzue, Joko Olinpikoak jokatuko dira garai horretan. Beraz, arerio indartsuenak ez dira txapelketan egongo?

**A.:** Uste dut aste beteko tartea dagoela Joko Olinpikoaren eta Espainiako txapelketaren artean. Igerilari onenak Tokion izango diren arren, arerio gogorak geratuko dira eta zaila izango da Udaberriko Openeko emaitzak berdintzea.

### Batxilergoa amaitu eta AEBra, New Yorkera zehazki zoazte ikastera. Igeriketarako iraginarria izan al du erabaki hori hartzean?

**A.:** Bai, horrela da. Bertan erraztasun gehiago ematen dituzte ikasketak eta kirolak uztartzeko.

Kanpusean dena duzu: unibertsitatea, igerilekua eta zure ostatua. Oinez joan zaitzake batetik bestera, horrek ikasketekin eta kirol jardunarekin jarraitzeko aukera ematen dizu.



# Jubenilen Ohorezkoa nagusi izan da

Ostadar SKTko taldeak Euskalduna 5-1 garaitu du. Hirugarren multzoko lehen postua mantendu du taldeak, eta txapeldunen faserako sailkatu nahi du. Jokatzeko dituen bi partidak irabazi behar ditu horretarako talde urdin-beltzak

## Txintxarri

Ostadar SKTko Jubenilen Ohorezko taldeak zazpigarren jardunaldia jokatu zuen etxean maiatzaren 2an, Andoaingo Euskalduna taldearen aurka.

Lasarte-Oriako taldea multzoko lehen postuan zegoen; Euskalduna, berriz, azkenekoan. Aurreikuspenak, beraz, talde urdin-beltzaren aldekoak ziren partida hasi baino lehen.

Eta Ostadarreko jubencil ohorezkoak ez zuen hutsik egin. Lehen zati ederra egin zuen. Erasoak ongi amaitu eta defentsan arerioa ongi izan zuten kontrolpean.

Etxeo taldeak erasoan hasi zuen partida eta Euskaldunak bere atean egindako gola ongi etorria izan zen.

Hamabigarren minutuan etxeko taldearen bigarren gola iritsi zen: bigarren zutoinean, buruz errematatu zuen Iker Sarasolak. Eta hirugarrena, Axier Gonzalezek egin zuen.

Korner jaurtiketa baten ostean, etorri zen laugarren Sevillanoren eskutik eta era honetara, atsedena 4-0 joan ziren.

Partida erabakia zegoenez, bigarren zatia lasaiago jokatu zuten jubencil ohorezko jokalariek. Orduan, indarrak berdindu ziren. 80. minutuan, Euskaldunak tartea



Ostadar SKTko Jubenilen Ohorezko taldeak Euskalduna garaitu zuen. TXINTXARRI

txikitu zuen. Baina partida bukatzeaz zela, bosgarren gola egin zuen etxeko taldeko Eneko del Puertok.

## Txapeldunen fasea, buruan

Garaipen honi esker, III. multzoko buru jarraitzen du Ostadarreko Jubenilen Ohorezko taldeak.

Antxon Navarro entrenatzaileak pozarren dago taldeak igandean egindako lanarekin. Gainera, azaldu duenez, helburua "txapeldunen fasean ahal den gorenen iristea da. Taldea dugu irabazteko edo behintzat onenen artean egoteko".

Helburua betetzeko, ordea, jokatzeko dituzten partidak

irabaztea garrantzitsua dela nabarmendu du prestatzaileak. "Bi partida geratzen zaizkigu lehen fasea amaitzeko, irabazten baditugu txapeldunen faseko final laurdenetarako sailkatuko gara".

Neurketa horiek prestatzeko denbora izango du taldeak, asteburu honetan atsedena baitu.

## Ezin partida jokatu

Ostadar SKTko gainerako partidak arazorik gabe jokatu ziren. Texas Lasartearek ez zuen zorte hori izan ordea. Kadete mailan, Astigarraga Mundaroren aurka zuen partida egunez aldatu behar izan dute arerioko jokalariek batzuk berrogeialdian zeudelako.



Senior mailako bikotea nagusi izan zen Zumaiaaren aurkako partidari. TXINTXARRI

## Intzako bikoteek, irudi ona Udaberriko lehen jardunaldian

Intza pilota elkarteko seniorrek partida irabazi zuten; kadeteek irabazi ez arren, partida berdindua jokatu zuten

## Txintxarri

Udaberri Txapelketako lehen jardunaldia jokatu zuten asteburuan Intza elkarteko pilotariek. I. mailako seniorrek, zein II. mailako kadeteek partida onak burutu arren, emaitza ezberdina izan zuten.

I. Senior mailako bikoteak Zumaia garaitu zuen Michelin kirol-guneko pilotalekuan.

Jon Pello Artetxe eta Mikel Elolak osatzen duten bikoteak Iriondo eta Alcantara izan zituzten aurrez aurre.

Partida hasiera berdindua izan arren, zortzina berdindu eta etxeko bikoteak erritmoa handitu zuen. Arerioek ezin izan ziren aldatetara moldatu eta Intzako seniorrak erraz nagusitu ziren, 22-10.

Kadete mailako neurketan, ordea, Jokin Lizasok eta Pedro Elosegui 22-16 galdu zuten Azeitiko Ilunperen aurka.

Intza elkarteko gaztetxoek buruz buru jokatu zuten Lizaso eta Larrañagaren aurka, baina ezin izan zituzten garaipeneko puntuak eskuratu.

"Partida ona jokatu zuten, baina tanto gehiago egin ahal zutelaren sentazioarekin amaitu genuen partida", adierazi du Jose Felix Solano arduradunak.

## Trinketea ere

Asteburu honetan txapelketako bigarren jardunaldia izango da. Gaur, maiatzak 7, ostirala seniorrek Tolosa 1 bikotearen aurka jokatu dute Amezketan; kadeteek, ordea, igandean Añorga izango dute arerio Michelin kirol-gunean.

Udaberri Txapelketako partidaz gain, kadeteek trinketeko bikotekako txapelketako neurketa ere izango dute. Larunbatean Iruran dute hitzordua. Hernani 1 bikotea izango dute aurrez aurre.

## Jurgi Sukuntzak Euskal Herriko Txapelketarako txartela lortu du

Buruntzaldea IKTKo alebin mailako igerilari 100 eta 400 metroko libre probetan lehiatuko da

## Txintxarri

Buruntzaldea IKTKo Jurgi Sukuntza alebin mailako CSD Txapelketarako sailkatzeko kontrol proban aritu zen, Irunen, maiatzaren 1ean. 100 eta 400 metroko libre probetan jardun

zen igerilari eta bietan Euskal Herriko Udako txapelketarako gutxieneko markak egin zituen. 100 metroko proban bere marka birrindu zuen Buruntzaldea IKTKo igerilari gazteak, 1.02,90 eginez.

Proba luzean, berriz, 4.54,84 marka egin zuen. "Nahiz eta azkarregi hasi zen, amaieran marka eder bat egin zuen, aste gutxi batzuk lehenago entrenamenduko egun batean egin zuen 4:59a hobetuz", azaldu du Borja Apeztegia Buruntzaldea IKTKo entrenatzaileak.

Bi marka horiek Euskal Herriko Udako Alebin mailako Txapelketako gutxienekoak dira, eta beraz, Sukuntzak txapelketan parte hartzeko eskubidea eskuratu du.



Sukuntza, Irungo proban. BURUNTZALDEA IKT

Bestalde, Buruntzaldea IKTK 2021-2022 denboraldiko aurretiko inskripzioa ireki du taldeko igerilari izan nahi duten herritarrentzat.

2014 urtean eta hori baino lehen jaiotako haur, gazte eta helduek eman dezakete izena. Inskripzioa [buruntzaldeaikt.eus](http://buruntzaldeaikt.eus) webgunean egin behar da.

Informazio gehiago webgunean bertan, [info@buruntzaldeaikt.eus](mailto:info@buruntzaldeaikt.eus) helbide elektronikoan edo 696 50 66 32 telefono eta WhatsApp zenbakian eskuratu daiteke.



# Bi puntuak, partida gogorraren sari

Ostadar SKTko junior errendimendu taldeak garaipena erdietsi du txapelketako bigarren faseko lehen jardunaldian, 60-41. Endika Marrahik zuzentzen duen taldeak partida berdindua eta intentsitate handikoa jokatu du TAKEren aurka

## Txintxarri

Lehen fasea amaituta, Ostadar Saskibaloiko junior errendimendu taldeak ezin izan zen lauko finalera sailkatu. Maitzaren 2ko asteburuan bigarren faseari hasiera eman zion eta lehen jardunaldian Tolosako TAKE izan zuen aurrez aurre, Maialen Chourraut kiroldegian.

Partidako lehen minututik Tolosako taldeak erritmoa ezarri zuen. Defentsan ere ez zen gaizki ibili eta etxeko taldea ez zen bere zelaian eroso sentitzen. Alabaina, Ostadarreko juniorrek ez zuten amore eman eta saski azpiko aukerak ongi baliatu zituzten laurdena eskuratzeko, 16-10.

Bigarren laurdenean bi taldeek jokoa hobetu zuten. Talde urdinbeltzak jaurtiketekin asmatu zuen bitartean, TAKEk sarrera eta errebotarekin min egiten zuen. Hala ere, Ostadarrek errenta mantentzen jakin zuen, 32-23.

Erabakigarria izan zen bigarren zatiko lehen laurdena. Tolosako taldeko jokalariek nekea sumatzen hasi ziren eta saskiratze kopurua gutxitu zen. Etxeko taldeak, aldiz, jokoaren irakurketa argia egin eta defentsan, zein erasoan ongi aritu zen. Aldea handitu zuen



Junior errendimendu taldeak TAKE garaitu zuen. TXINTXARRI

eta 65-29 markagailuarekin Tolosako taldeak partida iraultzea zail zirudien.

Azken laurdenean, indartsu ekin zion TAKEk helburuari hiruko saskiratze bati esker. Ostadar Saskibaloiko taldeko kideak, ordea, ez ziren atzean geratu eta ongi erantzun zuten 9-0ko partziala eginez. Markagailu nagusiko aldea handitzen zihonan arren, Tolosako taldeak ez zuen amore eman eta laurdena eskuratzeko zorian egon zen, 15-12. Azken emaitza 70-41ekoa izan zen.

Endika Marrahi junior errendimenduko prestatzaileak adierazi duenez, "partida gogorra

izan da, bi taldeak indartsu egon dira eta intentsitate handia egon da. Nahiz eta markagailuan abantaila handia egon arerioa gertu izan dugu beti".

Partida biribila egin ez zutela ere nabarmendu du. "Bakarkako jokoan ez dugu beti bezala jolastu, eta min gehiago egiteko gai ginela uste dut. Garaipena bai, baina lanean jarraitu behar dugu".

Ez zen hau Ostadar Saskibaloia saileko kideek lortutako garaipen bakarra izan. 3. senior mailako taldea Zalburdi Debasketi gailendu zitzaion, 51-48. 1. seniorrak, berriz, Antigua Luberriren aurka galdu zuen, 60-41.

hasiera ordua 09:00ak izango da, eta txandek astebeteko iraupena izango dute.

Taldeak gehienez hamabi kidekoak izango dira, eta plazen erreserbak egiteko izen-ematearen hurrenkera errespetatuko da.

Izena ematea Maialen Chourraut kiroldegiko bulegoan egin behar da. Informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero ere bertan eskainiko da.

Momentuan indarrean dauden COVID-19aren aurkako neurriak jakinarazi eta jarraituko dira.



Gernika RT eta Pozuelo CRCren arteko norgehiagokako irudia. GERNIKA RT

## Luzapenean ihes egin dio partidak Pozuelo CRCri

Jon Ander Puertas herritarra kide duen Pozuelok partida berdindua jokatu zuen Gernikaren aurka

### Txintxarri

Jon Ander Puertas kapitain duen Pozuelo CRC ez da Ohorezko mailako igoerako finalean izango. Maitzaren 2an, igandean, Gernikaren aurkako finalaurreko partida luzapenean galdu zuen talde madrildarrak, 23-20.

Neurketa berdindua izan zen Gernikako Ubitarte zelaian. Bi taldeek garaipena lortu eta Ohorezko Mailarako azken lehian egon nahi baitzuten.

Gernikak hautsi zuen husnako berdinketa bigarren minutuan zigor-ostiko bati esker.

Hamazazpigarren minutuan, ordea, Jon Ander Puertasen taldea erasoan zegoela, mele batetik epaileak zigor-entsegua adierazi zuen eta aurretik jarri zen Pozuelo CRC.

Defentsan tinko zeuden bi taldeak eta aurrera egitea zaila zen. Aireko jokoa nagusitu zen eta bai Pozuelo CRC baita

Gernika ere zigor-ostikoak izan zituzten markagailuan puntuak gehitzeko. Atsedenaldira 9 eta 10ekoarekin iritsi ziren.

Bigarren zatian, Joan Ander Puertasek zuzentzen zuen taldeak indartsu ekin zion helburuari eta herritarrak berak lortu zuen zati honetako lehen entsegua.

Gernika, berriz, zigor-ostikoei esker tartea txikitu zuen eta entsegua ere lortu zuen partida 17na berdintzeko.

Gutxira, aurre hartu zuen Pozuelok zigor-ostiko bati esker. Partidak 17-20 amaituko zuela zirudienean, Gernikak berdinketa lortu zuen.

Kanporaketa partida bakarrera izaki, luzapena jokatu behar izan zuten. Hamar minutuko bi zati jokatu zituzten eta bi taldeak gogor aritu arren, Gernikak joko planteamenduan asmatu zuen eta zigor-ostiko bati esker lortu zuen garaipena.

## Kirol udalekuen izen-ematea ireki du Udaleko Kirol Zerbitzuak

Lasarte-Oriako haur eta gaztetxoek udako kirol jarduerak egin ahalko dituzte uztailean zehar

### Txintxarri

Lasarte-Oriako Udaleko Kirol Zerbitzuak udarako antolatutako kirol udalekuetako izena ematea ireki du.

2009 eta 2012 urte arteko haur eta gaztetxoek hondartzara

irteerak, surfa, piragua, paddle surfa eta udarekin zer ikusia duten kirol-jarduera ugari egingo dituzte.

Saioak uztailean zehar egingo dira, 09:30etik 13:00etara, irteera egunetan izan ezik, orduan,

## Giroko Porra egiteko azken eguna, maiatzaren 8a

Italiako Giroa hastear da eta Ostadar SKTk Italiako itzuliko porra jarri du martxan.

Ostadar SKTren webgunean Internet bidez edo tabernetan aurki daitezkeen txartelak bete behar dituzte interesatuek maiatzaren 8ko 18:00ak baino lehen, larunbata.


Sari ugari izango dira. Porrako irabazleak 400 euroko saria jasoko

du eta bigarren sailkatuak, 200 euro. Etapako irabazleak, 65 euro irabaziko ditu. Eta horrez gain, sei banatuko dira parte-hartzaile guztien artean.


Gogoratu porra hau Ostadar SKTk antolatutako *Aurten lauak baietz!* txirrindularitza porraren barruan dagoela. Beraz, sari nagusia, 1.600 euro, irabazi nahi izanez gero, lau itzulietan (Euskal herriko itzulia, Italiako Giroa, Tourra eta Espainiako itzulia) parte hartu eta lau txartelak izen bera izan behar duela.



## KOMIKIA



## ZORION AGURRAK



**Feli**  
100 urte beteko ditu gure etxeko lora ederrak... Hori da sasoi, hori! Zorionak amona Feli!!!! Maite zaitugu!



**Elene**  
Zorionak Elene!! Ederki ospatu behar dugu zure eguna, merezi dezu eta! Beti alai, beti panpox... izugarri maite zaitugu, bihotza. Garazi, Aizpea, aiton-amonak eta gurasoak



**Jon**  
Beti sukaldean, beti su artean... Asteburu honetan, zuk ere mahaian eseri beharko duzu, ezta? Hori bai, bazkaria ordaintzea zure kontu! Zorionak! Etxekoen partetik.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

### Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Zure erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
- Bidali zure zorion agurra formularioa bete.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean

eta ostiralean paperean.

### Posta elektronikoa

- Mezu bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.
- Ez ahaztu irudia mezuan txertatzea.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak.

## OHARRA

### Kutxa Bira


*Bizi gira...kutxa bira!* egitasmoa jarri du martxan Iparra-Hegoa elkarteak.

Egurrezko kutxa bat Euskal Herria zeharkatzen ari da: martxoaren 20an hasi zuen ibilbidea, eta maiatzaren 30ean amaituko du. Helburua da parte hartu nahi duen herri, ikastetxe, elkarte, eragile...orok egurrezko kaxa horretan bete nahi dituen ametsak eta aldarrikapenak sartzea.


Lasarte-Oriatik maiatzaren 27an pasako da, 17:30ean. Egitasmoarekin bat egin nahi duen oro Joxe Mari Agirretxerekin jar daiteke harremanetan, 616 43 21 69 telefonora deituta.

## EGURALDIA LASARTE-ORIAN


### Ostirala, 7




### Larunbata, 8




### Igandea, 9




### Astelehena, 10




### Asteartea, 11



### Asteazkena, 12



### Osteguna, 13



## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 7	LASA
LARUNBATA, 8	GIL
IGANDEA, 9	GIL
ASTELEHENA, 10	DE ORUE
ASTEARTEA, 11	ACHA-ORBEA
AZTEAZKENA, 12	URBISTONDO
OSTEGUNA, 13	GANDARIAS-URIBE

**EGUNeko FARMAZIAK: 9:00-22:00**  
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

### GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

A. Etxebarria, 'Cuevas': Andrea kalea 48, Hernani. 943 55 17 93

**URTE OSOKO GUARDIAK APP-A** eskuragarri app store edo android marketen  
Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) orrialdean eskuragarri.

## SUDOKUA

2		4				3	
	1	5				8	4
		9	4	1		6	5
3			9	7			8
9			2	3		7	4
5		7	1		6	3	
4	5			9			7
	9	2			7	4	3
	7	3	6				

## Lesbosera kirol-materiala bidaltzeko bilketa

Kirol-oinetakoak eta futboleko jokatzeko botak bilduko dira maiatzaren 19ra arte, asteazkenarekin, egun hori barne, Ostadar SKT'ko lokalean (Geltoki kalea, 25). Jasotako materiala Greziako Lesbos uhartera bidaliko da, bertan bizi diren errefuxiatuekin lanean ari den Yoga and Sport with Refugees GKEak jaso dezan.

Kontuan hartu, mesedez, oinetako horiek beste pertsona batzuek erabiliko dituztela, eta beraz, egoera egokian egon behar direla. Mila esker zure ekarpenagatik!

## Biyak-Bat elkarteko podologia zerbitzua berriro martxan

Biyak Bat adinekoen egoitzako kideek TXINTXARRI-ri jakinarazi diotenez, podologia zerbitzua eskaintzeari berrekingo dio maiatzaren 12an.

Ordutegia 9:00etatik 14:30era izango da. Beharrezkoa izango da hitzordua aurrez hartzea, 635 20 74 18 telefonoan.

## Jaiotzen berri eman

Zure haur jaioberriaren izena Txintxarri aldizkarian *Jaiotzak* atalean argitaratzea nahi baduzu, bidali haurraren izen-abizenak eta jaiotze data [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus) helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

## Heriotzen berri eman

Ingurukoren baten heriotzaren berri Txintxarri aldizkarian *Heriotzak* atalean eman nahi baduzu, bidali zendutako pertsonaren izen-abizenak eta heriotza data [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus) helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.



## AZOKA TXIKIA

### ETXEBIZITZA

#### ERRENTAN EMAN

Garajea alokatzen dut Torre parkean (Brigidatarren plazan). Harremanetarako zenbakia, 648 20 08 11.

#### LANA

#### ESKARIA

Pertsona eskaintzen da orduka etxe garbitu edo pertsona adinduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prestutasuna. Harremanetarako zenbakia, 608 93 56 74.

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak zaindu edo eurekin paseatzeko. Orduka edo externa gisa lan egiteko. Harremanetarako zenbakia, 663 49 98 41.

Adineko pertsonak zaindu edo eurekin paseatzeko nuke. Orduka edo externo gisa lan egin nahiko nuke. Harremanetarako zenbakia, 676 18 84 11.

Adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko eskaintzen dut nire burua.

Paperak eguneratuta dauzkat. Harremanetarako zenbakia, 651 51 92 69.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketetan... esperientzia handikoa eta profesionala garbiketetan.

Harremanetarako zenbakia, 673 55 62 89.

Pertsona eskaintzen da etxeko garbiketa lanak egin, leihoak garbitu, adineko pertsonak paseatzeko edo umeak zaintzeko. Orduka

edo externa. Harremanetarako zenbakia, 619 35 58 19.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia, 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak

egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitaletan gauak egiteko prest. 634 27 81 98.

### SALEROSKETA

#### SALDU

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseoa aulkia + Maxicosia. Arina, erosoa eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 250 euro. 646 824 466.

## NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

### TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

### TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus) 646.824466

## ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48  
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: 80 €  
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: 90 €

Txintxarri: doan eta euskaraz  
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

### Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

### Administraria

Nerea Garziarena.

### Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Zaldua eta  
Maitane Aldanondo.

### Publizitatea

Irati Zatarain.

### Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maider Galarzi, Mikel Yarza,  
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta  
Aizpea Amas.

### Banatzzaileak

Julene Iraola, Uxue Odriozola, Lide  
Hidalgo, Egoitz Epelde, Erlantz  
Ezeiza, Iker Lanchas, Iñigo Garcia,  
Olatz Bardaji eta Igone Mendizabal.

### Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

### PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)

### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93  
ISSN: 1134-0053  
Tirada: 8.350 ale

## BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

## DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia



# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



## LASARTE-ORIA Mobilizazioa.

Sare Herritarrak Euskal Herriko 650 tontoretara igotzeko ekimena antolatuta du. Lasarte-Orian Benedika eta Buruntzara egingo da ibilaldia. Okendo plaza, larunbata, 09:30ean

Egitaraua:

- 09:30ean, irteera.
- 10:30ean, argazkia Benedikan.
- 11:00etan, Azkorte.
- 11:30ean, Buruntzara argazkia, irrintzia eta kantua.

## OSTIRALA 7

### LASARTE-ORIA Aste Musikala

Oiasso Kameratak *Con aire de tangos* emanaldia eskainiko du. Marina Beheretche luxuzko bidelagun izango dute. Arturo Cardelius, Astor Piazzolla eta Isaac Albeniz lanek osatzen dute egitaraua. Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etan.

## LARUNBATA 8

### LASARTE-ORIA Mobilizazioa

Izan Bidea dinamikako 650 tontor ekimenarekin bat eginik, Benedika eta Buruntzara ibilaldia egingo da. Sare Herritarrak deitutako ekimena. Okendo plaza, 09:30ean.

### LASARTE-ORIA Erakusketa

*Non daude emakumeak\*? Puntu beltzak eta emakumearen presentzia eza* Lasarte-Orian erakusketa antolatu du aSunak taldeak. Okendo plaza, 11:00etatik 13:00etara.

### LASARTE-ORIA Aste Musikala

Sasibill elkarte lirikoak *Marina* opera taularatuko du. Emilio Arrieta nafar konposatzaileak sorturiko obra lirikoa zartzuela izan zen bere hastapenean. Gerora, opera bilakatu zuen egileak. Sarrera, 12 euro. Manuel Lekuona kultur etxea, 18:30ean.

## IGANDEA 9

### LASARTE-ORIA Aste Musikala

Thierry Biscary musikariaren

emanaldiaz gozatu ahal izango dute bertaratzen direnek. *Muda* izeneko bere azken lana ekarriko du kultur etxeko auditorioko oholtzara. Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etan.

### USURBIL Mobilizazioa

Urtebete da Zubietako erraustegitik egindako isurketa kutsakor baten ondorioz Arkaitzerrekan ehunka arrain hil agertu zirela. Hori dela eta, Usurbilgo Anerreka Ingurumen Elkartek Arkaitzerreka martxa antolatu du. Bi zutabe egongo dira bata Usurbilgo pilotalekutik aterako da eta bestea Zubietako plazatik. Alre Garbia plataformak herritarrei dei egiten die ekimenean parte hartzeko. Zubietako plaza, 11:00etan.

## Kalitatezko musika eta zinema

Lasarte-Oriako Udalak maiatzerako prestatutako jardueren berri eman du eta, ohi bezala, kultur ekimen ugari izango da hasi berri den hilabetearen IX. Musika Asteak tarte berezia izango du, baina zinemak eta antzerkiak ere ez dute hutsik egingo.

Asteazkenean ekingo zioten Musika Asteari kultur etxeko auditorioan. Lehen saioan, Macbeth opera digitala ikusteko aukera izango zuten kultur etxera bertaratutakoek. Shakespeareren izen bereko tragedian inspiratuta, Giuseppe Verdi osatutako lana da.

Gaur, hilak 7, berriz, Arturo Cardelius, Astor Piazzolla eta Isaac Albenizek piezak joko ditu Oiasso Kameratak, Marina Beheretche lagun duela. *Con aire de tangos*, 19:00etan hasiko da eta sarrera doakoa da.

Larunbatean, estiloa aldatu, eta Sasibil Elkarte Lirikoak Marina opera ekarriko du kultur etxeko oholtzara, 18:30ean.

Egitasmoa amaitzeko, igandean, Thierry Biscary musikari baxenafarrak *Muda* bigarren diskoko kantak aurkeztuko ditu, 19:00etan. Bi saio hauetarako sarrerak 12 eurotan salgai daude.

Hilabete amaieran, musikaz gozatzeko aukera berria izango da. Eñaut Elorrietak hartuko dio lekukoa Biscaryri eta *Irteera argiak* azken lanaren kantak ikus-entzuleei ezagutzera emango dizkie. Maiatzaren

28an, ostirala, 19:00etan izango da. Sarrerak, 5,50 euro.

### Saritutako filmak

Musikaz gain, beste kultur jarduera batzuk ere izango dira datozen asteetan.

Haur zinemak hasiko du zuen ekimen zerrenda, maiatzaren 2an, *Tessa eta ni* filmaren proiektioarekin; hilaren 23an, igandea, berriz, *Tom eta Jerry* pelikularen txanda izango da.

Bi emanaldiak 17:00etan dira, eta, ohi bezala, sarrerak 3,80 eurotan salgai daude.

Helduen zinema eskaintzari dagokionez, Okendo Zinema Taldearen hitzordua izango da lehena. Hilaren 14an, ostirala, Thomas Vinterberg zinemagile daniarraren *Otra ronda (Druk)* ikusgai izango da.

Nazioarteko film onenaren Oscarra eskuratu berri duen pelikula jatorrizko hizkuntzan gaztelaniazko azpidatziekin proiektatuko dute.

Horrez gain, zinemazaleek beste bi emanaldi dituzte maiatzean.

Hilaren 16an, igandea, Oscar sarietan film onenaren saria eta beste bi garaikur

**MAIATZEKO AGENDAK MUSIKA ARDATZ DUEN ARREN, OSCARRETAN SARITUTAKO HIRU FILMEZ ERE GOZATU AHALKO DA ZINEMA ATALEAN**



Oscar sarietan hiru garaikur jaso dituen *Nomadland* filma eskainiko da, maiatzaren 16an. NOMADLAND

jaso dituen *Nomadland* filmaz gozatu ahaliko dute.

Eta hilaren 30ean, igandea, Oscar sarietan jatorrizko gidoi onena eskuratu duen *Una joven prometedor* filma eskainiko da.

Hiru saioak 19:00etan hasiko dira eta sarrerak 5,50 eurotan eros daitezke.

### Kabareta eta magia

Antzerkiak ere badu bere tarte kultur agendan. Hilaren 21ean, ostirala, Kabareta konpainiak dantza, musika eta antzerkia uztazen dituen *Esnatu naiz* ikuskizuna

antzeztuko du kultur etxeko auditorioan, 19:00etan. Sarrerak 3 euro balio du.

Familiei begira, aldiz, magia ikuskizuna. *Ezinezkoaren logika* emanaldian Hodei Magoak ezinezkoa errealitate bihurtzeko daitekeela erakutsiko die ikus-entzuleei. Nola egiten duen ikusi nahi dutenek hilaren 29an, 17:00etatik aurrera dute horren berri izateko aukera. Sarrerak, 3,80 eurotan eskura daitezke.

Era berean, maiatzaren 21ean amaituko da Lasarte-Oriako XXXV. Literatur Lehiaketa eta Lasarte-Oriako Haur eta Gazteen XXXIV. Literatur Lehiaketara lanak aurkezteko epea.



## Bideo TIEN 21 Lagunak

Finantziazioa neurria

Garraio zerbitzua

Erabilitako gailuen jasotzea

Aholkularitza espezializatua

Preziorik onena

**Etiketresna elektrikoetan adituak**

**ZERBITZU TEKNIKO PROPIOA**

# Udaberriko TOP 21 maiatzean!

## auhera!

**Etiketresna elektrikoetan aukera zabalena prezio onenean!**

Telebistak   Garbigailuak   Hozkailuak   Labeak   Bitrozeramikak

Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | [www.bideolagunak.com](http://www.bideolagunak.com)

**USURBILGO LANBIDE ESKOLA**

CIFP USURBIL LHII

943 364600

[adkomunikazioa@lhusurbil.eus](mailto:adkomunikazioa@lhusurbil.eus)

[www.lhusurbil.eus](http://www.lhusurbil.eus)

# Ate Irekiak

## Maiatzak 12

Erdi Maila: 16:00 - 17:30  
Goi Maila: 17:30 - 19:00

## Maiatzak 15

Erdi Maila: 10:00 - 11:30  
Goi Maila: 11:30 - 13:00

*HARTU HITZORDUA!!!*

# MOTORRAREN GIDA

*Esku ezin hobean eta Lasarte-Orian!*

**Karrozeria**

**DANI**  
*karrozeria*

**Trebeak gara kolpe handiak konpontzen**

- Kabina labeduna
- Txapak zuzentzeko oinarri unibertsala
- Tapizatuen garbiketa

Zirkuitu ibilbidea 12  
LASARTE-ORIA  
**Tel. 943 37 14 40**  
Mugikorra: 608 39 18 85  
[carroceriasdani@carroceriasdani.com](mailto:carroceriasdani@carroceriasdani.com)  
[www.carroceriasdani.com](http://www.carroceriasdani.com)

**Tailerrak**

**2car**

Zure konfiantzazko tailerra

Zumaburu kalea, 18  
LASARTE-ORIA  
**Tel: 943 36 24 63**

**ZUBIETA MOTOR**

Mekanika eta karrozeria konponketak

- Auto erdiberri, erabili eta OKM salmenta

**ZUBIETA MOTOR**

Oria Etorbidea 4, 6.  
LASARTE-ORIA  
Tel: 943 36 00 09  
[zubietamotor@centrauto.es](mailto:zubietamotor@centrauto.es)

Gida honetan azaldu nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan

Hurrengo gidan parte hartu nahi baduzu (ekainaren 11n, jar zaitez gurekin harremanetan: 943 37 14 48 (106) / 646 82 44 66 (deitu edo whatsapp) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)